



BESARKADA SOLIDARIO FALTSUAK ABANTO ZIERBENAN

Abanto Zierbenako Udaltzaingoak jakinarazi du azken egunotan jakin dutela zenbait emakume, besarkada eta beste amarru batzuen bidez, adineko pertsonengana hurbildu eta bitxiak eta diru-zorroak lapurtu dizkietela.

Gertaera horien egileak itxura oneko bi emakume gazte dira (baliteke hainbat nazionalitatekoak izatea), eta euren biktimengana hurbiltzen dira konfiantza osoa agertuz. Horrela, muxu, besarkada, laudorio eta hitz goxoen bidez, adinekoei bitxiak edo diru-zorroak lapurtzea lortzen dute. Biktimak ez dira lapurretaz ohartzen harik eta emakume horiek leku horretatik alde egiten duten arte.

Udaltzaingoak honako gomendio hauek ematen ditu:

- Ez fidatu konfiantza gehiegiz hurbiltzen diren pertsonekin.
- Ez fidatu besarkatzen, muxu ematen eta eskuei eskumuturretatik heltzen saiatzen diren ezezagunekin. Ekintza horien bidez, lapurreten egileek bitxiak eskura ditzakete.
- Ez atera diru-zorroa ezezagunei NANa erakusteko.
- Lapurreten egileak emakumeak izan ohi dira, baina ez baztertu gizonek ere jarduteko aukera.
- Biktimarengandik aldentzen direnean, begiratu emakumeek zein norabide hartzen duten.
- Egileak ibilgailuren batera igotzen badira, saiatu kotxeko matrikularen plaka, marka, modeloa eta kolorea memorizatzen.
- Udaltzaingoari ahalik eta lasterrena eman lapurtzeko saiakeraren edo lapurretaren berri. Horretarako, deitu:

Udaltzaingoa: 946362881
Larrialdiak: 112
Muskizko Ertzaintza: 944063460

FALSOS ABRAZOS SOLIDARIOS EN ABANTO ZIERBENA

La Policía Local de Abanto Zierbena informa que durante los últimos días se ha tenido conocimiento de la presencia de mujeres, que mediante abrazos y diferentes argucias, se han aproximado a las personas de edad avanzada, sustrayéndoles joyas y carteras.

Las autoras de los hechos, dos mujeres jóvenes con buena apariencia y que pueden ser de diferentes nacionalidades, se aproximan a sus víctimas y mostrando una gran familiaridad, entre besos, abrazos, halagos y piropos consiguen desprender a las personas mayores de sus joyas o carteras. Las víctimas no perciben la sustracción hasta después de que las mujeres han abonandonado el lugar.

Desde La Policía Local se aconseja :

- Desconfiar de las personas que se aproximan con mucha familiaridad.
- Desconfiar de los desconocidos que intenten abrazar, besar o que sujetan las manos por las muñecas. Estas acciones, les permiten a las autoras de las sustracciones, apoderarse de las joyas.
- No sacar la cartera para mostrar el D.N.I., a desconocidos.
- Las autoras de las sustracciones suelen ser mujeres, pero no descartar la posibilidad de que también puedan actuar hombres.
- Cuando se alejan de la víctima, observar a las mujeres que dirección toman.
- Si las autoras se suben en un vehículo, intentar memorizar la placa de la matrícula, la marca, modelo y color del mismo.
- Poner los hechos del intento de la sustracción o de la sustracción en conocimiento de la Policía Local lo más rápido posible, llamando :

Policía Local : 946362881
Emergencias : 112
Ertzaintza Muskiz : 944063460